



**2023KO UZTAILAREN 20KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren hogeian, arratsaldeko sei eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Aitor Altuna Oiarbide, Amagoia Naldaiz Mingo, Josetxo Sese Eztala, Unbe Echaniz Perez, Aritz Goicoechea Gonzalez de Audicana, Joxemai Ormazabal Sukia, Aitziber Azurmendi Imaz, Egoitz Bergara Azpirotz, Maialen Amundarain Irizar, Haritz Antoñanzas Urdangarin eta Maria Carolina Aguirre Mastrangelo.

Eneritz Miranda Muxikak zinegotziak jakinarazi du ezin dela bertaratu.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

Iñaki Eskisabel Zurututza kontu-hartzaileak ere bileran parte hartu du.

Bilkurako lehen puntuari heldu aurretik, Alkateak esan du, hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean EAJ-PNVren bakarkako adierazpena erretiratu egingo dutela eta EH Bildurekin batera adierazpen bateratu bat aurkeztuko dutela. Guztiek onartu dute.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu dira 2023ko ekainaren 14an, ekainaren 17an, ekainaren 26an eta ekainaren 29an egindako ez-ohiko bilkuretako aktak, eta 2023ko uztailaren 11an egindako ez-ohiko eta urgentziatzko bilkurako akta, idatzita dauden moduan onartu direlarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzaren Ebazpenen berri eman du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

III.- ALKATEAK ZENBAIT ESKUMEN TOKIKO GOBERNU BATZARRARI ESKUORDETZEKO EMANDAKO EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-

Alkateak, zenbait eskumen Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetzeko emandako ebazpenaren berri eman dio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

IV.- INFORMAZIO BATZORDEEN LEHENDAKARITZA ESKUORDEZKO EMANDAKO ALKATETZAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.-

Udalbatza honen informazio-batzordeak zehazten dituen presidentziak eskuordetzeko emandako ebazpenaren berri eman dio Alkateak Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditu da.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ekainaren 29ko Osoko Bilkuran adierazi zuten bezela, modu orekatuagoan banatu zitezkeela ardurak eta herritarrentzat ere mesedegarriagoa izango litzatekeela.

Alkateak erantzun dio jasota gelditu zela aurreko bilkuran eta jakinaren gainean daudela.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 1 ZENBAKIDUN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIEN-TEA.-

Udal honetako aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Kontu-hartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespren proposame-na irakurri dira.

Alkateak kreditu aldaketa proposamenaren xehetasunaren azalpena egin du.

Hau guztia honela, gaia bozketan jarri da eta Osoko Bilkurak, aho batez, honako akordio hauek hartu ditu:

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 4 zenbakidun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposame-naren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

| Kapituluak | Izena | Gehikuntzak |
|------------|--|-------------|
| II | Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak | 78.030,00 € |
| III | Finantza-gastuak | 600,00 € |



| | | |
|----------------------------|-------------------------|--------------------|
| IV | Transferentzia arruntak | 2.100,00 € |
| VI | Inbertsio errealak | 7.442,13 € |
| GEHIKUNTZAK GUZTIRA | | 88.172,13 € |

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

| Kapitulua | Izena | Zenbatekoa |
|----------------|-------------------|--------------------|
| VIII | Finantza aktiboak | 88.172,13 € |
| GUZTIRA | | 88.172,13 € |

Bigarren.- Jendurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- HERRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN (KARTOGRAFIA EGITEA BARNE) GASTUAREN URTE ANITZEKO IZAERA ONARTZEA.-

2023ko aurrekontuak Herri Antolamenduaren Plan Orokorra (kartografia egitea barne) jasotzen du, baina gastu hori urte anitzeko gastua izango zela ez zen jasota geratu.

Hori horrela eta Herri antolamenduaren Plan Orokorraren urte anitzeko izaera onartzeari buruz, Ogasuneko Informazio Batzordeak proposatutakoa aztertu da, bai eta gastua 2023ko eta ondorengo ekitaldietako Aurrekontuan sartzea ere.

Halaber, Kontu-hartzailearen lanpostuan diharduen funtzionarioak egindako erregelamenduzko txostena aztertu dugu.

Gastu baten urte anitzeko izaera onartzea Udalbatzarrari dagokio.

Aurrekontuan egokitu beharreko kreditua jasotzeko eta konpromiso kredituen eranskinaren diligentzia egiteko, gastu baten urte anitzeko izaeraren onarpena, hain zuzen, gastu hori kudeatu behar den ekitaldiko aurrekontua egin aurretik erabaki behar da, guztia ere, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 6.1.e) artikuluan dioenaren arabera.

Udalbatzarrak gaia behar adina aztertu eta bozketan, aho batez, hau erabaki du:

Lehenengoa.- Herri Antolamenduaren Plan Orokorren urte anitzeko izaera onartzea, gastua ekitaldi ekonomiko batera baino gehiago hedatzen delako eta atalkako egitasmotan banatu ezin daitekeelako.

Bigarrena.- Hasierako izaeraz finkatzen dira aipatutako urte anitzeko gastu egitearen ondorengo egutegia eta ondorengo zenbatekoak:

| | |
|------|--------------|
| 2023 | 62.230,42 € |
| 2024 | 167.387,65 € |
| 2025 | 166.375,00 € |
| 2026 | 33.275,00 € |

VII.- LAZKAOKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA EGITEN HASTEA ERABAKITZEA.-

Udalerriko Plangintza Orokorra Lazkaoko Udal Plangintzako Arau Subsidiarioek osatzen dute. Arau horiek Diputatuen Kontseiluak behin betiko onetsi zituen 2008ko abenduaren 23an (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2009ko otsailaren 19an).

Azken urteotan Lazkaoko Udalerriak lurraldearen, gizartearen, ekonomiaren, naturaren eta kulturaren errealitateari erantzungo dion hirigintza-antolamendua edukitzeko beharra sortu da, gizartearen eskaerei erantzuteko.


Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. artikulua arabera, Hiri-Antolamenduko Plan Orokorrek antolamendu-zehaztapen hauek ezartzen dituzte:

- Gutxienez, plan orokorrak hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartzen duen udal-mugarte osoaren egiturazko antolamendua eta hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua.
- Aukeran, lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta plan orokorrak hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartzen ez duen hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua; bi kasuetan, antolamendu xehatuko plangintza bidez antolatu ahal izango da.

Hiri Antolamenduko Plan Orokor berria onartzeko lanen antolaketa Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzu Sailaren gaitasun berri baten sorburu gisa sortu da, aurrerantzean Plan Orokorren aplikazioaren eta hiriaren garapenaren etengabeko jarraipen- eta ebaluazio-eginkizuna bere gain hartu ahal izan dezan.

Esperientzia horren bidez, hirigintza-kudeaketaren eraginkortasuna indartuko da, eta Plana gauzatzean sortzen diren aukerak aprobetxatuko dituzten proiektu eta eragiketa berriak sortzeko gaitasuna garatuko da.

Plan Orokorra egitearekin lotutako zeregin tekniko horiei ekiteko modu material gisa, modu misto bat ezarri da modu operatibo gisa, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuen Arloan kokatua eta bere sailei atxikitako teknikariek osatua, kanpoko profesional eta aholkulariekin lankidetzan.



Prozesu teknikoaren administrazio-zuzendaritza Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzu Sailak hartuko du bere gain, eta hari dagokio fase bakoitzean egindako lanen zuzendaritza eta jarraipena egitea, antolamenduaren irizpideak eta estrategiak ezartzea, eta proposatutako helburuak lortzeko zehazten diren proposamenak ezagutzea, kontuan hartzea eta hautatzea.

Dokumentu teknikoak egiteko epea 40 hilabetekoa izango dela aurreikusten da. Horrela, HAPOn dokumentuaren Aurrerapena egiteko behar den garapen-maila lortu ahal izango da, eta egokitzapen hori azterlanetatik ondorioztatzen den irismen teknikoaren arabera izango da, eragindako erakundeek eta partikularrek beharrezko informazioa eta dokumentazioa eman ondoren.

Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorra egiteko eta onartzeko prozedura, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. eta 91. artikuluen arabera egingo da. Artikulu horiek martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren bidez garatu ziren (46/2020 Dekretua, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzekoa).

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, "Hirigintza-antolamendua formulatu, izapidetu, onartu eta egikaritzeko da, pertsona fisiko edo juridikoek modu guztietan parte har dezaten sustatuz eta erraztuz, lege honetan berariaz aurreikusitakoak bermatuz. "

108. artikuluen arabera, "egiturazko antolamenduko plangintzaren edozein figura formulatzen, aldatzen edo berrikusten hasteko udal-erabakiarekin batera, herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu beharko da. Programa horretan, udalerrriaren ezaugarrien arabera, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek plana egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea izan dezaten". Martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 3.2 artikuluan adierazitakoaren arabera, herritarrek parte hartzeko programa horrek, gutxienez, honako partaidetza-mekanismo hauek izango ditu:

- a) Parte hartzeko gida bat. Bertan, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak deskribatuko dira, bai eta xehetasunak ere. Gida horretan, gainera, parte hartzeko prozesuaren abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena jasoko da.
- b) Jendaurreko bilkurak, ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako balizko alternatibak azaltzeko.
- c) Dibulgazio-materiala, legez eskatutako dokumentuekin batera prestatu beharko dena, errazago zabaldu eta ulertzeko.

Edonola ere, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra ingurumen-ebaluazioaren mende daude, martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 6. artikuluan, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean eta planen eta programen



ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duen urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio ados daudela horrelako Plan bat ahalik eta kontsentsu handienarekin erabaki behar dela. Oposizioak lanerako aukera gutxi izan duela, eta erabakitzeko aukerarik Gabe zaila dela kontsentsu zabal batera iristea. Parte hartze programari bi hutsune ikusten dizkiotela: batetik diagnostiko falta eta bestetik, kutsua hartzen dutela parte-hartzea informazioa emate moduan ulertzen dela eta jendeak ondoren komentarioren bat egin behar badu egin dezala. Beraz, abstenitu egingo direla.

Alkateak dio 2022ko martxoan bidali zela dokumentazio guztia lehen aldiz. 2022ko irailean ere aipatu zela eta uztailaren 11an Hirigintza Batzordean jorratu zutela gai hau, eta ez zirela bertan izan. Ikusitako hutsune horien berri gaur izateak harritzen du, zerbait denborarekin egin bada hau izan dela dio.

Aurrekoarekin bat etorriz,

Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ-PNV), Alkatearen botoa barne, 6 abstentziorekin (EH Bildu) eta aurkako botorik gabe, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Lazkaoko udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiten hasteko erabakia hartzea, Erabaki honekin batera doan herritarren partaidetzarako programa kontuan hartuta.

BIGARRENA.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 90. artikuluko 1. eta 2. paragrafoetan aipatzen diren txostenak eskatzea.

HIRUGARRENA.- Txosten horiek jaso ondoren, Udalerriko Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerapena idazteko agintzea. Bere garaian, hasierako onespena eman beharko zaio, eta koordinazio administratibo egokia eta parte-hartze publikoa sustatu beharko dira. Hasierako dokumentu estrategikoa ere idatzi beharko da.

LAUGARRENA.- Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzu Saila izendatzen da dagokion formulazio-espeditatea izapidetzeko ardura duen zerbitzu gisa, eta dagozkion lanak koordinatu beharko dira.

Udal-organo, -zerbitzu eta -bulego guztiek plangintza-tresna hori idazten lagunduko dute, eta, horretarako, behar diren dokumentuak eta informazioa emango dituzte, hargatik eragotzi gabe gainerako administrazio eta erakunde publikoen lankidetzaz.

BOSGARRENA.- Argitara bedi erabaki hau Udalaren iragarki-taulan eta udal honen egoitza elektronikoan (edo web-orrian)

VIII.- IBILGAILUAK KARGATZEKO PUNTUETAN ENERGIA ELEKTRIKOA HORNITZEKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN HASIERAKO ONARPENA.-



Ogasun Batzordeak Osoko Bilkurari helarazi dion irizpena ikusi du, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuetan energia elektrikoa hornitzeagatik prezio publikoa ezartzeari buruzkoa. Baita hau arautzen duen testu arautzailea ere, honakoa izanik:

**LAZKAOKO UDALAREN IBILGAILUAK KARGATZEKO PUNTUETAN ENERGIA
ELEKTRIKOA HORNITZEKO PREZIO PUBLIKOA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

Lege Oinarria

1. Artikulua

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 6.etik 18bis.era bitarteko artikuluetan eta 43.etik 50.era bitarteko artikuluetan emandako eskumenez baliatuz, udal honek Lazkaoko udalerrian ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuaren prestazioa arautzen du, bai eta zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak ere.

Zerbitzua ematea

2. Artikulua

Ibilgailuak kargatzeko zerbitzua Lazkaoko herriko Euskadi Enparantza ondoko aparkaleku publikoan, horretarako prestatutako birkarga-instalazioaren bidez emango da.

Lazkaoko Udalak etorkizunean beste instalazio batzuk gaitu ahal izango ditu Lazkaoko udalerriko espazio publiko berean edo desberdinetan.

Betebeharraren sorrera

3. Artikulua

Pertsona fisiko eta/edo juridikoek ibilgailuak elektrikoki kargatzeko zerbitzua erabiltzen badute, Lazkaoko Udalari dagokion prezio publikoa ordaindu beharko diote.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen hasten denetik edo jarduera egiten hasten denetik sortzen da, baina Lazkaoko Udalak haren zenbateko osoa edo partziala aldez aurretik gordailutzea eskatu ahal izango du, Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen Foru Arauaren 49. artikulua 1. apartatuarekin bat etorritik.



Ordaintzera behartuta daudenak

4. Artikulua

Ibilgailuak elektrikoki kargatzeko zerbitzu hori emateagatik prezio publikoa ordaindu beharko dute zerbitzu hori ezarritako edozein modutan baliatzen duten pertsona fisiko edo juridikoek.

Zenbatekoa

5. Artikulua

Prezio publikoagatik jaso beharreko eskubideen zenbatekoa ordenantza honen tarifen eranskinean ezarritakoa izango da.

Lazkaoko Udalak eranskin hori eguneratu ahal izango du gainerako prezio publiko eta tasekin batera, edo bestela, modu partikularrean, horretarako dagokion legezko prozedurari jarraituz.

Ordenantza honetan araututako prezio publikoaren zenbatekoek dagokien BEZa barne hartzen dute.

Kobrantza

6. Artikulua

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denetik sortzen da.

Prezio publikoa ordaintzeko betebeharra duen pertsona fisikoari edo juridikoari egotzi ezin zaizkion arrazoicngatik zerbitzua edo jarduera ematen edo garatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

Prezio publikoengatik zorrak premiamendu-prozeduraren bidez eskatuko dira.

Kobrantzeko prozedura

7. Artikulua

Udalak kobrantza-sistema bat ezarri ahal izango du, horretarako aplikazio informatiko espezifikoaren bidez, udalaren berezkoak edo hirugarren agenteek emandakoak, efizientetzat jotzen baditu.

Sistema horiek erabiltzeak kostu gehigarria izan lezake erabiltzen dituzten erabiltzaileentzat, eta kostu hori kargaren zenbatekoaren % 5 izango litzateke gehienez ere.





TARIFEN ERANSKINA

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko zerbitzuaren zenbatekoa, karga-puntutik zerbitzua ematen zaion ibilgailu elektrikorako eramandako energia elektrikoaren prezio unitarioan oinarrituta finkatzen da.

Ibilgailu elektrikoak bide publikoan kargatzeko zerbitzuaren aleko prezioa:

0,2975 euro/kW · h gehi 0,0625 €, BEZari dagozkionak. Guztira 0,36 euro/kW · h.

Irizpen honetan Ogasun Batzordeak Osoko Bilkurari, prezio publikoak ezartzeko organo eskuduna izanik, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 50. artikulua araberako eginiko proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak aho batez honako akordioak hartu ditu:

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena ematea prezio publikoen ezarpenari eta horien testu arautzaileari, espedientean jasotakoaren arabera.

BIGARRENA.- Espedienteari aginduzko izapideak eta publizitatea ematea, udal honetako iragarki-oholean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hogeita hamar egun balioduneko epean jarrita. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu eta egoki irizitako erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

HIRUGARRENA.- Aipatutako epean espedienteari erreklamaziorik aurkezten ez bazaio, Erabakia behin betikotzat jotzea.

IX.- KIROLDEGIA HANDITZEKO 5.1 FASEKO OBRAREN 10., 11., ETA 12. OBRA EGIAZTAGIRIAK.-

Joxemiel Barandiaran kiroldegiaren birmoldaketa lanen obra zuzendaritza daramaten Jovino Martinez Sierra arkitektoak eta Alberto Olabarrieta Etxeberria arkitekto teknikoak lan hauen hiru obra egiaztagiri egin dituzte.

Hamargarren obra egiaztagiria BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA HAMABOST EURO ETA HAMASEI ZENTIMOKoa (274.895,16 €) da, BEZ barne.

Hamaikagarren obra egiaztagiria EHUN ETA LAU MILA EHUN ETA HOGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMOKoa (104.270,14 €) da, BEZ barne.

Hamabigarren obra egiaztagiria BERREHUN ETA LAUROGEITA BOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMOKoa (285.472,94 €) da, BEZ barne.

Lanak Iparragirre Eraikuntza Lanak S.L. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak oniritzia eman die ziurtagiri hauei.

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) dio gai honen inguruan abstenitzen jarraituko dutela, proiektuarekin ados ez daudelako.

Hau guztia kontuan izanda, Hirigintza, Etxebizitza eta Zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botorekin (EAJ), Alkatearen botoa barne, aurkako botorik gabe eta 6 abstentzioz (EH Bildu), ziurtagiri hauek onartu ditu.

X.- LAZKAOKO UDALAREN ERAIKINEN GARBIKETA KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA.-

Lazkaoko Udaleko zerbitzu buruak, eraikinen garbiketa zerbitzua emateko Udalak Gureak Garbitasuna, S.L. enpresarekin sinatua duen kontratuaren lehen luzapena proposatu du.

Udal honek 2020ko urriaren 5ean izenpetu zuen Gureak Garbitasuna, S.L. enpresarekin Lazkaoko Udal eraikinen garbiketa zerbitzua emateko kontratua, lehiaketa ireki bidez ateratako lizitazioa berari esleitu zitzaionez.

Kontratu hau hiru urterako izenpetu zen eta urte beteko 2 luzapen egiteko aukera dago. Hiru urteko epea 2023ko urriaren 5ean beteko da.

Lazkaoko Udaleko zerbitzu buruak 2023ko uztailaren 13ko data daraman idatzia aurkeztu du udal honetan, bere aldetik urte beteko lehen luzapena egiteko proposamena eginez.

Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, Gureak Garbitasuna, S.L.-rekin izenpetutako Lazkaoko Udal eraikinen garbiketa zerbitzuaren kontratua urte betez luzatzea erabaki du.

XI.- "ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-PROGRAMA" EMATEKO ZERBITZUA BURUTZEKO KONTRATUAREN LEHEN LUZAPENA.-

Lazkaoko Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariak, "etxez etxeko laguntza-programa" zerbitzua emateko udalak Eulen Servicios Sociosanitarios, S.A. enpresarekin sinatua duen kontratuaren lehen luzapena proposatu du.

Udal honek 2021eko irailaren 27an izenpetu zuen Eulen Servicios Sociosanitarios, S.A. enpresarekin "etxez etxeko laguntza-programa" emateko zerbitzuaren kontratua, lehiaketa ireki bidez ateratako lizitazioa berari esleitu zitzaionez.

Kontratu hau bi urterako izenpetu zen eta urte beteko 2 luzapen egiteko aukera dago. Bi urteko epea 2023ko irailaren 27an beteko da.

Lazkaoko Udaleko gizarte zerbitzuetako teknikariak 2023ko uztailaren 5eko data daraman idatzia aurkeztu du udal honetan, bere aldetik urte beteko lehen luzapena egiteko proposamena eginez.





Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, Eulen Servicios Sociosanitarios, S.A.-rekin izenpetutako "etxez etxeko laguntza-programa" emateko zerbitzuaren kontratua urte betez luzatzea erabaki du.

XII.- KIROL ZERBITZUEN KONTRATUAREN BIGARREN LUZAPENA.-

Lazkaoko Udaleko kirol teknikariak, Joxemiel Barandiaran kiroldegiko kirol zerbitzuak emateko udalak Athlon Sintagma S.L. enpresarekin sinatua duen kontratuaren bigarren luzapena proposatu du.

Udal honek 2020ko urriaren 30ean izenpetu zuen Athlon Sintagma S.L. enpresarekin Lazkaoko Joxemiel Barandiaran kiroldegiko kirol zerbitzuen kontratua, lehiaketa ireki bidez ateratako lizitazioa berari esleitu zitzaionez.

Kontratu hau bi urterako izenpetu zen eta urte beteko 2 luzapen egiteko aukera dago. Bi urteko epea 2022ko urriaren 30ean bete zen eta lehen luzapena egitea erabaki zen 2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran. Lehen luzapen hau 2023ko urriaren 30ean amaituko da.

Lazkaoko Udaleko kirol teknikariak 2023ko uztailaren 13ko data daraman idatzia aurkeztu du udal honetan, bere aldetik urte beteko bigarren luzapena egiteko proposamena eginez.

Hau guztia honela, Osoko Bilkurak, gaia aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, Athlon Sintagma S.L.rekin izenpetutako kirol zerbitzuen kontratua urte betez luzatzea erabaki du.

XIII.- HIZKUNTZA ESKUBIDEEN AURKAKO EPAIAREN AURREAN, EAJ-PNVREN ETA EH BILDUREN ADIERAZPENA.-

Naldaiz zinegotziaren (EAJ-PNV) eta Ormazabal zinegotziaren (EH Bildu) artean irakurri duten adierazpenak honakoa dio:

"Hizkuntza eskubideen aurkako epaiaren aurrean

Euskaalgintzako eragileekin batera Lazkaoko udaleko EAJ-PNV eta EH Bilduko hautetsiok, zera adierazi nahi dugu:

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak Udal Legearen aurka, udalei euskara hutsez aritzeko aukera ezetsiz, emandako epaiak eragin digun kezka larriak ekarri gaitu idatzi hau aurkeztera.

Kezkagarria eta larria iruditzen zaigu sententzia euskararen normalizazio eta biziberritze prozesuari oztopoa jartzea delako, helburu horren alde udaletatik bideratzen diren hizkuntza-politikak guztiz mugatzen baititu. Bide batez esan, herritar guztien hizkuntz

eskubideak bermatzen dituzten hizkuntza-politikak direla atzera bota diren horiek, ezetsi den Udal Legearen 6.2 artikulua berariaz jasotzen baitu berme hori.

Finean, euskara eta euskal hiztunak mespretxatzen ditu epai honek, eta euskarak normalizazio eta biziberritze bidean etorkizunera begira dituen desafio handiei aurre egiteko moduko hizkuntza-politikak indarrean jartzea eragozten du.

Eusko Legebiltzarrak kontsentsu zabalez onartu zuen orain baliogabetutako Udal Legea. Era berean, azken Inkesta Soziolinguistikoa argi erakutsi du gizartearen gehiengo zabal batek babesten dituela euskararen normalizazioa helburu duten politikak. Beraz, epai hori euskararen biziberritzearen aurkako ez ezik adostasun sozial handi baten kontrako ere bada. Azken batean, herritarren eta udalen erabakimena jartzen ditu auzitan. Erabakimen horren defentsan hona hemen ehunka alkate eta udal ordezkariaren presentzia.


Uste dugu epai hau oldarraldi judizial zabalago baten parte dela, hizkuntza gutxituak jomugan dituen olatu erreakzionario batean kokatzen dela. Euskaingintzako eragileek kezka horren berri Bilbon eman zuten joan den maiatzaren 10ean, eta herritarrei dei egin zieten azaroaren 4an oldarraldi honen aurka, baina, batik bat, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde Bilbon egingo den manifestazioan parte hartzera. Epai honen ondoren, deialdiarekin bat egiten du Lazkaoko Udalak: oldarraldiaren aurka, baina, batez ere, euskararen normalizazio eta biziberritzearen alde."

XIV.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galderarik egon.

XV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko zazpiak eta hamar direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA